

## **Funtzeko jarduerak**

Gure proiektua aurrera eramateko bi jarduera nagusi behar ditugu:

Behar dugun lehenengo gauza web-orri bat da. Gure dominioa daukagunean, web-orria sortuko dugu, bezeroak gure produktua erabilgarri izan dezaten. Honela aparatu elektroniko ezberdinetatik sartu daitezke erabiltzaileak. Bertan, jokuak salduko genituzke eta bezeroarekin kontaktuan jartzeko tresna ezberdinak.

Bestalde, denbora guztian interneten bilatzen ez egoteko eta ordenagailuan erosoagoa izateko, aplikazio bat sortuko dugu gure serbitzua eskaintzeko. Bertan, web-orrian bezala, jokuak eskainiko ditugu jokalariek erosi ahal izango dutelarik.

Ordenagailuan bakarrik deskargatu ahal izango dute aplikazioa erabiltzaileek. Honetarako "Launcher" bat beharko dugu. Honekin jokuak ireki egiten dira bezeroak erabili ahal izateko.